

## BERMEOKO UDALAREN DIRU LAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRI OROKORRAK

### I. KAPITULUA

#### XEDAPEN OROKORRAK

##### 1. ARTIKULUA.- XEDEA:

Oinarri orokor hauek Bermeoko Udalak (Udala zein administrazioa aipatzen dan guztietan Erakunde Autonomoak eta Beruala ere barne hartzen ditugu) eskaintzen dituzten dirulaguntzen prozedura arautzeko dira. Dirulaguntza horiek Udalak gauzatutako programen osagarri direnak bultzatzeko dira, horrela Udaleko sailek eta Erakunde Autonomoek dituzten helburuak lortzen laguntzeko.

##### 2. ARTIKULUA.- ARAUTEGI APLIKAGARRIA

Eskariak erabakitzeko orduan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta berau garatzen duen arautegia beteko dira. Era berean, Eusko Legebiltzarraren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean dirulaguntzei buruz ezarritakoa eta indarrean dauden gainerako arautegiak ere beteko dira.

##### 3. ARTIKULUA.- ESPARRUAK, ARLOAK ETA DIRULAGUNTZA JASO DEZAKETEN KONTZEPTUAK.

Ondorengo taulan daude adierazita nahi duten erakunde, elkarte eta pertsonak (juridikoak edota fisikoak) eskatu ditzaketen dirulaguntzen **esparruak eta arloak**. Arlo hauek **diruz lagundu daitezkeen kontzeptu ezberdinetan** daude banatuta. Hori guztiori oinarri berezietan garatzen da:

ESPARRUA	ARLOAK
GIZARTE EKINTZA	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Biztanleen ongizatea bultzatzen duten programetarako laguntzak.</li> <li>2. Gizartekintza sustatzen duten elkarteei laguntzak</li> </ol>
ENPLEGUA ETA TOKIKO GARAPENA	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Tokiko Garapenerako diru laguntzak</li> <li>2. Lankidetzarako programak garapen turistikorako</li> <li>3. Merkataritza sustatzeko diru laguntzak</li> </ol>
KULTURA	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Kultura taldeei urteko jarduera arruntengatik diru laguntzak</li> <li>2. Kultura taldeei jarduera bereziengatik diru laguntzak</li> </ol>
EUSKERA	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Euskara sustatzeko diru laguntzak</li> </ol>
JAIK	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Bermeoko jai patronalak eta jai bereziak</li> <li>2. Kaleetako jaiak</li> <li>3. Auzoetako jaiak</li> </ol>
GAZTERIA	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Gazteei bideratutako ekintzak zein aisialdiko ekintza bereziak finantzatzeko diru laguntzak.</li> </ol>



**KIROLA**

- 1.- Kirol taldeen jarduera arrunta finantzatzeko diru laguntzak
- 2.- Bermeon antolatzen diran kirol jarduera bereziak finantzatzeko diru laguntzak
- 3.- Eskola-kiroleko partaideen artean kirola sustatzeko diru laguntzak

#### **4. ARTIKULUA.- ESKATZAILEAK**

---

**4.1.** Helburuak betetzen dituzten programak gauzatu edo burutu nahi dituzten **irabazi-asmorik gabeko erakunde, elkarte eta pertsonak** (bai fisikoak eta baita juridikoak ere) eska dezakete dirulaguntza.

Era berean, Bermeon egoitza duten ikastetxeek diru-laguntza eska dezakete, baldin eta beren-beregi badago aurreikusita oinarri berezietan.

**4.2.** Irabazi-asmorik gabeko erakundeek (federazioak, konfederazioak, fundazioak eta elkarteak) Bermeoko Elkartearen Erregistroan izena emanda egon eta datuak eguneratuta eduki behar dituzte, horretarako aurretiaz, Eusko Jaurlaritzako elkarte erregistroan izena emonda egon beharko dira eta IFK eduki beharko dute.

**4.3.** Salbuespenez, erakundearen egoitza Bermeon ez daukaten irabazi-asmorik gabeko elkarteek eta, hortaz, udal erregistro horretan ez daudenek, jarduera puntualak Bermeon egin nahi badituzte, Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistro Orokorrean edo dagokion erregistro publikoan izena nahitaez ematea eskatuko zaie.

**4.4** Eskaria egiten dutenek (danek, erakunde, elkarte, pertsona fisiko eta juridikoak) zergen arloko betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Bermeoko Udalaren zergak ordainduta eduki behar dituzte, eskaria aurkezten duten unean eta prozesu osoan ere bai (diru-laguntza ematean, betebeharra onartzean eta ordaintzean).

**4.5.** Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 lege orokorraren 13. artikuluan dirulaguntzak eskuratzeko ezarritako debekuaren batean ere ez egotea.

#### **5. ARTIKULUA.- ESKARIAK**

---

##### **5.1. Aurkezteko epea.**

Urteko lehen hiruhilekoan argitaratuko dira urteko diru laguntzen oinarriak eta aurkezteko epea zein betekizunak, baldintza zehatzetan adierazita agertuko da.

##### **5.2. Informazioa eta dokumentazioa.**

Deialdiari buruzko informazio guztia **udalaren web orrian** ([www.bermeo.eus](http://www.bermeo.eus)), Berhaz Bulegoan, eta Patronatuetoako bulegoetan (bakoitzari dagokionak) egongo da euren ohiko ordutegian.



### 5.3. Tramiteak.

Eskariak Udalaren web orriaren bidez edo Udal Erregistroetan egin daitezke.

- **Udalaren web orriaren** bidez tramitatzen bada eskaria, urrats guztiak bete behar dira, aplikazioak eskatzen dituen datu guztiak emanda.
- Eskaria **Udalaren Erregistroetan edota organismo autonomoen erregistroetan** egiten bada, Udalak aurreikusita duen eredu bat bete beharko da dirulaguntzen esparru eta arlo bakoitzeko.

Orri horretan, dirulaguntzaren arlo horretara aurkezten dituen programak zehaztuko ditu eskatzaileak, dirulaguntza jaso dezaketen kontzeptuen bidez, oinarri berezietan banakatutakoaren arabera. Hala ere, **hurrengo artikuluetan jarritako mugak errespetatu beharko dira beti.**

Eskabide-orria **Udalaren Erregistroetan**, edota organismo autonomoen erregistroetan eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan adierazitako bestelako eratan aurkez daiteke.

**5.4.** Programa bakoitza diru-laguntzaren arlo bakarrera aurkez daiteke.

**5.5.** Eskatutako dirulaguntzak ez dira inoiz izango programa bakoitzerako finkatuta dagoen gehieneko diru-kopurua baino handiagoak. Gehieneko kopuru hori oinarri berezietako arlo edo dirulaguntza jaso dezaketen kontzeptu bakoitzerako finkatzen da.

**5.6.** Dirulaguntzetako esparru edo arlo edo kontzeptu bakoitzaren barruan aurkeztu daitekeen programa-kopurua ere mugatu daiteke oinarri berezien bidez.

**5.7.** Oinarri hauen 16. artikuluan adierazita dagoenez, eskari guztietan hartu beharko da kontuan dirulaguntzen eta bestelako bidez lortutako finantzazioa ezin dela izan aurkeztutako programaren kostua baino handiagoa.

**5.8.** Bermeoko Udalak eta bere organismo autonomoek egokitzen dituzten argibideak eska diezazkioke eskaria egin duen elkarteari, aurkeztu duten eskabidea hobeto baloratu ahal izateko.

## **6. ARTIKULUA.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

---

**6.1.** Eskaria **udalaren web orriaren** bidez aurkezten bada, aplikazioko urrats guztiak bete beharko dira eta eskatutako datu guztiak erantsi beharko dira, bertan adierazi bezala.

**6.2.** Eskaria **Udal Erregistroan** egiten bada, eskabide-orriarekin batera agiri hauek aurkeztuko dira:

- a. Programaren laburpen-fitxa, emandako ereduaren arabera.
- b. Programa bakoitzaren aurrekontuari buruzko fitxa, emandako ereduaren arabera.



c. Garatuko den programa bakoitzaren edukia azaltzen duen agiria; agiri horretan, aurkeztutako gastuen aurrekontu zehaztuaren azalpena ere eman beharko da.

d. Erakundeak edo eskatzaileak (persona fisikoak be izan leikez) aurreko urtean egindako jardueren memoria (erakunde edo eskatzailea berriak direnean izan ezik).

e. Bermeoko Udalari ez bazaio ematen betebeharrak fiskal eta Gizarte Segurantzako betebeharraren inguruko datuak biltzeko baimenik: betebeharrak fiskalak ordainduta edukitzearen ziurtagiria, eskabide egiten den urtean zerga-administrazio eskudunak egina, eta Gizarte Segurantzari dagozkionak ere ordaindu izanaren ziurtagiria edo elkarteak/eskaitzaileak bere kargu ez duela langilerik azaltzen duen ziurtagiria, eskabidea egiten den urtean Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak egina.

f. Dirulaguntzen arlo jakinen oinarri berezietan eskatutako beste edozein agiri.

**6.3.** Esparru bakoitzeko, aurreko ataletan adierazitako dokumentazio gaz batera, Bermeoko Udalak horietarako prestatutako inprimakia aurkeztu beharko da.

**6.4.** Bermeoko Udalaren dirulaguntzarik edo udalak egindako bestelako ordainketarik inoiz jaso ez dutenen kasuan gero, Hartzekodunen Erregistroan agertzen ez diren elkarteek "hartzekodunen fitxa" (emango zaie) aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta.

**6.5.** Bermeoko Elkartearen Erregistroan izena ematerik ez duten erakundeek beste dokumentazio hau ere aurkeztu beharko dute:

a) Dagokion erregistroan izana emanda dagoela egiaztatzen duen agiriaren fotokopia.

b) Erakundearen estatutuen fotokopia.

c) Hartzekodunen fitxa

d) IFKren fotokopia

**6.6.** Eskabide-orria, ez badago behar bezala beteta edo aipatutako datuak edo dokumentuak falta badira, eskaria egin duenari **10 asteguneko epea emango zaio akatsak zuzentzeko**. Akatsok zuzendu ezean, eskaria artxibatu egingo da besterik gabe.

## **7. ARTIKULUA.- BALORAZIOA EGITEKO IRIZPIDEAK**

---

**7.1.** Udaleko sailek irizpide eta puntuazio hauek aplikatuta egingo dute aurkeztutako programen balorazioa, beti be, ***baldintza berezietan ez bada beste irizpiderik adierazten:***

**A) Programaren balorazioa egiteko irizpideak ..... GUZTIRA 80 puntu**

a) Programaren interesa: *Gehienez 45 puntu*

Udaleko Sailen ildo estrategikoekin, helburuekin eta irizpideekin bat etortzea; partaide-kopurua; kalkulaturako eragina; berritasuna-teknologia berrien erabilera, eremu geografikoa; programaren iraupena; zein kolektiborentzat den; programaren finkapena (lehenago gauzatutako programa den); lankidetzaren beste erakunde batzuekin; jarduera egiten den lekua.



b) Kalitatea programaren diseinuan: *Gehienez 10 puntu*

*Irizpide honen barruan baloratu daitezkeen gaiak:*

Honako hauek sartzea: lortu nahi diren emaitzak; betetze-mailaren adierazleak eta ebaluazioa; kanpoko komunikazioa; barruko komunikazioa; justifikazioa (programa egiteko arrazoiak).

c) Aurrekontua egokitzea: *Gehienez 10 puntu*

*Irizpide honen barruan baloratu daitezkeen gaiak:*

Finantza arloko ahalegina (beste finantzazio-iturri batzuk bilatzea); eraginkortasuna baliabideak esleitzean; programaren interesaren eta aurkeztutako aurrekontuaren arteko lotura.

d) Euskara, genero-berdintasuna, kultura artekotasuna, gazteria, irisgarritasuna bezalako zeharkako gaiei programan emandako tratamendua: *Gehienez 15 puntu*

*Irizpide honen barruan baloratu daitezkeen gaiak:*

Euskarazko jarduerak, biztanle elebidunentzat; diruz lagunduko diren erakundeak, elkarteak... Bikain ziurtagiria edo Bai Euskarari Ziurtagiria izatea; 13tik 35 urtera bitarteko gazteentzako programak izatea proportzio esanguratsuan; gazte-taldean partaidetza sartzea programan; genero-ikuspegia sartzea programan; hizkuntzaren eta irudiaren erabilera ez sexista; jardueren memoria sexuka bereizirik aurkeztea; jarduerak udalerrian dagoen kultur aniztasuna kontuan hartzea; etorkinen elkarteetan edota etorkinei laguntzeko elkarteetan ere programaren zabalkundeak egitea; proiektuak taldeen edo kolektibitateen arteko harremanak edo elkarreraginak lantzea; programak atzeritarrek parte hartzea errazteko ekintza zehatzak edo egokitzapenak edukitzea; pertsona guztien irisgarritasuna bermatzeko neurri zehatzak aurreikustea programak.

**B) Eskaria egiten duen erakundearen balorazioa ..... GUZTIRA 20 puntu**

*Irizpide honen barruan baloratu daitezkeen gaiak:*

Egiaztatutako esperientzia, programa gauzatzeko ahalmena eta parte hartzekoa eta bidezkoa den egituraduna; koordinakundeetako partaideak izatea; elkarteko kideak prestakuntza-ikastaroetara joatea; egoitzaren irisgarritasun baldintzak.

## **8. ARTIKULUA.- HIZKUNTZA IRIZPIDEAK**

---

Euskararen Normalizaziorako Udal Ordenantzak, X. atalean, Euskera eta Udalaren dirulaguntzei buruzkoan, zehazten duenarekin bat etorritik, eta udalaren Euskararen Erabilera Plana aintzat hartuz, honako baldintzak bete beharko dituzte dirulaguntza hartzen dutenek, Gizarte Ekintza esparrukoek salbu:

- Programen edo ekintzen ondorioz egingo diren idatzi, ohar, kartel eta generakoak euskaraz egingo dira. Euskaraz eta beste hizkuntzaren batean egitekotan, euskarari lehentasuna emango zaio.



- Publizitatea, bai ahozkoa, zein idatzizkoa, euskaraz egingo da; euskaraz eta beste hizkuntzaren batean egitekotan, erdaraz baten esaten den bakoitzean, euskaraz hiru bider esango da.
- Ospakizun zehatzetan, bozgorailu bidez ematen diren mezuak euskaraz izango dira. Euskaraz eta beste hizkuntzaren batean izatekotan, euskarari lehentasuna emango zaio.
- Umeentzat eta gazteentzat antolatzen diren mota guztietako ekitaldiak euskaraz izango dira.
- Hitzaldiak, jaialdiak, lehiaketak, kanpainak, eta abar, euskaraz egingo dira. Holan baloratuz gero, euskaraz ez badira egingo, euskarari lehentasuna emango zaio.
- Hitzaldietan hizlariak euskaldunak izango dira. Hizlari euskaldunik ez balego, aurkezpen osoa eta laburpena euskaraz egingo dira. Elkarrizketa zabaltzen denerako, galde-erantzunak euskaraz eginak izan daitezten, mahaian itzultzaile edo interpretari lana beteko duen norbait egongo da.
- Hitzaldiez aparte ekintzetan, aurkezle lanetan ere, euskarari lehentasuna emango zaio. Ekintza amaitu ostean, elkarrizketa sortuko balitz, euskaraz izan dadin ahalbidetzeko itzulpen lanak egingo lirarteke.
- Euskararen kalitatea bermatu behar da aipatutako ahozko eta idatzizko ekintza guztietan.
- Taldeek izan ditzaketen zalantzak argitzeko, eta, jendaurreko ekintza idatzietan kalitatea bermatzeko (trakeskeriarik eta bidegabekieriarik gertatu ez dadin), Euskera Sailaren laguntza eskatzea gomendatzen da.

## **9. ARTIKULUA.- DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA**

---

**9.1** Oinarri bereziek finkatuko dituzte aplikatu daitezkeen erregimenak eta diru-laguntzaren arlo bakoitzaren aurrekontuaren kopurua; kopuru hori izango da emango den gehienekoa. Hala ere, oinarri bereziak onartzen direnetik diru-laguntza eman arte egoera ekonomikoak txarrera egiten badu, kopuruak jaitsi egin ahal izango dira, defizitik ez izateko; herri-administrazioen betebeharrak hori Aurrekontuen Egonkortasunari eta Finantzen Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa dago ezarrita eta, beraz, aurrekontuak doitzekoa ere bai.

Oinarri berezietan finkatuko dira oinarri orokorretako erabaki orokorrei aplikatu dakizkiekeen salbuespenak ere.

**9.2.** Oinarri berezietan finkatuta dagoenez, dirulaguntzaren arlo edo kontzeptu bakoitzari aplikatu dakizkiokeen erregimenak hauek dira: norgehiagoka eta prorrata.

- Norgehiagokan, lehentasuna finkatzeko, jasotako eskariak alderatu ondoren emango da dirulaguntza, aurreko artikuluan edo oinarri berezietan zehazki adierazitako irizpideekin bat etorrita. Ondoren, baloraziorik handiena lortu dutenei emango zaie dirulaguntza, betiere deialdiaren oinarri berezietan finkatutako aurrekontuko dotazioa gainditu barik.

- Prorrata denean, aurkeztu diren eskari guztien artean banatuko da aurrekontuko dotazioa, kontuan hartuta, modalitatearen arabera, lortutako puntuazioa (prorrata puntuka), esleipen finkoa (esleipen finkoaren bidezko prorrata) edo moduluak (prorrata moduluka), behean zehazten diren salbuespenekin.



**9.3.** Moduluka egiten den prorratan eta esleipen finkoaren bidezko prorratan, gutxieneko puntuazioa eduki eta oinarri berezietan jasotako baldintzak betetzen dituzten eskari guztiek izango dute dirulaguntza jasotzeko eskubidea, moduluak edo esleipen finkoa ezartzetik sortutako diru-kopurua jasotzekoa hain zuzen, lortutako puntuazioa aintzat hartu barik. Hala ere, zenbateko hori beherantz doituko da aurrekontuko dotazioa nahikoa ez bada aurkeztutako eskari guztietarako.

**9.4.** Era berean, dirulaguntza jaso dezaketen kontzeptuei aplikatzeko prorrata sistemaren hiru modalitateak aldi berean (baita modulukako prorrata eta norgehiagoka ere) erabiltzea aurreikusi daiteke oinarri berezietan. Kasu hauetan, dirulaguntzaren arlorako izendatutako aurrekontuko dotazioa modulukako prorrata aplikatzeko kontzeptua aukeratu zuten eskarien artean banatuko da lehenengo. Gainerako saldoa puntukako prorrata, esleipen finkoko prorrata edo norgehiagoka (kasuan kasu) aplikatzen zaien kontzeptuak aukeratu zituzten eskarien artean banatuko da.

**9.5.** Oinarri berezietan honako gitxiengoak finkatuta egongo dira: Dirulaguntzarako eskubidea izateko programa bakoitzak lortu behar dituen gutxieneko puntuak.

**9.6.** Norgehiagoka sistema erabiltzen den kasuetan, behin gutxieneko diru-kopurua lortuta, diru-kopuru hori programa bakoitzean lortutako puntuazioari dagokion portzentaia aplikatuta doituko da. Baldintza berezietan ezer esan ezean, taula honetan adierazita dagoen eran:

<b>Programari emandako puntuak</b>	<b>Emango den dirulaguntzaren %a.</b>
80 puntu baino gehiago	Eskatutako diru-kopuruaren % 100
70etik eta 80 puntu bitartean	Eskatutako diru-kopuruaren % 80
70 puntu baino gutxiago	Eskatutako diru-kopuruaren % 70

**9.7.** Oinarri berezietan zehaztuko da nor izango den eskariak tramitatzeko eta informazioa emateko ardura duen teknikaria (teknikari instrukzio-egilea). Balorazia egingo duen batzordea udalean bakarria izango da edozein diru laguntzaren azterketa egiteko eta beti instruktorea den teknikariak eta alderdi bakoitzeko kide batez eraturik egongo da. Alderdi bakoitzeko kideak eta euren ordezkoen izendapena, talde politiko bakoitzeko bozeramaleak alkateari zuzendutako idazki baten bidez egingo da, eta horren berri emango zaio osoko bilkurari.

**9.8.** Edonola delarik ere, dirulaguntza emateko nahitaezko baldintza da emateko ebazpena hartzen denean kreditu egokia eta nahikoa egotea.

## **10. ARTIKULUA.- ESKARIAK ERABAKITZEKO ETA JAKINARAZTEKO EPEA**

---

Ebazpena emon eta jakinarazteko gehienezko epea hiru hilabetekoa izango da, eskariak aurkezteko epea amaitzen denetik kontatzen hasita.

## **11. ARTIKULUA.- DIRULAGUNTZEN ORDAINKETA**

---

**11.1. Diru laguntzak baldintza zehatzetan adierazitako moduan ordainduko dira:**



Dirulaguntzen kopuru osoa edo parte bat, aldez aurretik ordaindu daiteke, hau da, justifikatu aurretik, ezelako bermerik eskatu barik, dirulaguntzaren xede diren jarduerak gauzatzeko beharrezkoa den finantziak bideratuta, edo alderantziz, ekintzak egin, justifikatu eta gastuen azterketa egin ostean.

**11.2.** Dirulaguntzak Bermeoko Udaleko Hartzekodunen Erregistroan agertzen den erakundearen banku-kontuan sartuko dira. Persona fisikoen kasuan, eskaera orrian adierazita agertu beharko da datu hori.

**11.3.** Dirulaguntza ez da ordainduko eskatzaileak beste dirulaguntzaren bat justifikatu barik badauka horretarako epea amaituta egonda. Aurreko dirulaguntzaren baten diru-kopurua atzera itzultzeko eskatuta, itzuli barik badauka, orduan ere ez zaio ordainduko.

## **12. ARTIKULUA.- ERAKUNDE ONURADUNAK EGIN BEHARREKO DIRULAGUNTZAREN PUBLIZITATEA**

---

Dirulaguntza bat lortzen duten guztiek Bermeoko Udalaren finantziario horren publizitatea egin beharko dute inprimatzen dituzten materialetan (kartelak, foiletoak, informazio-orriak,...), zerbait oroitzeko plaketan, bitarteko elektronikoetan, ikus-entzunezkoetan zein idatzizko komunikabideetan argitaratutako iragarkietan. Bermeoko Udalaren edo bere Erakundea Autonomo zein Berualaren logotipoa kasuz-kasu, agertu beharko da. Argitalpenen kasuan edukiaren erantzukizunaren klausula sartu beharko dute, testu honekin:

Proiektu honek Bermeoko Udalaren dirulaguntza jaso du; hala ere, bere edukiaren erantzukizuna erakunde onuradunarena bakarrik da.

Bermeoko Udaleko sailek Udalaren logotipoa emango diete interesdunei.

## **13. ARTIKULUA.- AZPIKONTRATAZIOA**

---

Onuradunek jarduerak azpikontratatu ahal izango dituzte Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 29.2. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira. Hala ere, oinarri espezifiketan salbuespenak egon daitezke.

## **14. ARTIKULUA.- PROGRAMA ALDATZEA**

---

Programan edozein aldaketa garrantzitsu eginez gero, aldaketa egin aurretik Bermeoko Udalari eskatu beharko zaio udal erregistroaren bidez, eta hark eman beharko du baimena beren beregi.

Aldaketa garrantzitsu bat egiteko eskabideak arrazoitu egin beharko dira, eta aurrekontuko eta kronogramako ondorioak zehaztu beharko dira. Tokiko Gobernu batzarrak sail egokiaren ordezkariari eskuordetuko dio aldaketa horiek baimentzea.

Hauek joko dira aldaketa garrantzitsutzat:

- a) Helburu orokorretan edo/eta zehaztutan aldaketak egitea.
- b) Onartutako aurrekontuetako zenbatekoak % 20 baino gehiago aldatzea (partiden arteko aurrekontu-aldaketek ezin izango dute zeharkako kostuetan eraginik eduki), ez badute programaren aurrekontu osoa gutxitzen.

Aldaketak programaren aurrekontua gutxitzen badu, Tokiko Gobernu batzarrak edota erakunde autonomoen batzorde eragileak onartu beharko dute.



Diru-laguntzaren izaera edo helburuak funtsean aldatzen ez dituen beste edozein aldaketa justifikazioa egiten denean onar daiteke, beste batzuen eskubideak kaltetzen ez badira.

## **15. ARTIKULUA.- UKO EGITEA**

---

Dirulaguntza emateko erabakia hartu ondoren, onuradunak dirulaguntzari uko egiteko eskaria egin dezake Bermeoko Udalaren edota bere erakunde automonoen udal erregistroen bidez. Jarduera burutzeko epea amaitu baino lehen aurkeztu beharko da eskaria eta eragina izango du dagokion saileko ordezkariak onartzen duenean. Kasu horretan, itzuli egin beharko dira jasotako diru-kopuruak.

## **16. ARTIKULUA.- BATERAGARRITASUNA BESTE DIRULAGUNTZA BATZUEKIN**

---

Bermeoko Udalak emandako dirulaguntzak eta beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuek emandakoak bateragarriak dira, oinarri berezietan bestelakorik adierazi ezean. Edozelan ere, dirulaguntzen eta bestelakoen bidez lortutako finantzazioaren zenbatekoa ezingo da izan diruz lagundutako programaren kostua baino handiagoa.

## **17. ARTIKULUA.- DIRULAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA**

---

### **17.1. Justifikazioa aurkezteko epea.**

Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea 3 hilabetekoa izango da jarduera amaitzen denetik hasita edo ematen denetik (gauzatu ondoren bada) hasita, burutu eta geroago emanez gero.

### **17.2. Justifikatu beharreko zenbatekoa.**

Dirulaguntzarako aurkeztutako aurrekontu oso-oso justifikatu beharko da, eta ez bakarrik Bermeoko Udalak emandako diru-kopurua, hala ezartzen du-eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak.

### **17.3. Justifikatzeko era.**

**17.3.1. Norgehiagoka edo puntukako prorrata sistemak erabiliz gero**, justifikazioa egiteko, programa bakoitzean egindako gastuaren faktura aurkeztu beharko du onuradunak, ondoren zehaztutako eran eta, betiere, oinarri berezietan bestelakorik adierazi ez bada.

Honako hauek sartuko dira justifikazioan:

- a) Programa gauzatzeko egindako jardueren eta lortutako emaitzen memoriak. Horiek bat etorriko dira eskabidean aurkeztu den programarekin.
- b) Programaren gastuen eta sarreraren balantzea, banatutako ereduaren arabera.
- c) Programaren fakturen zerrenda, banatutako ereduaren arabera edo faktura guztien kopiak, baldintza zehaztuta jasotakoaren arabera.
- d) Programa gauzatzeko epearen barruan egindako gastuen jatorrizko ziurtagiria. Mota biko gastuak bereizten dira horretarako:
  - Programarekin zuzenean lotutako kostuak: oso-osorik justifikatu beharko dira, fakturen eta balio bereko gainerako ziurtagirien bidez.
  - Gastuen justifikaziorako diren dokumentuetan datu hauek jasoko dira:



- Onuradunaren identifikazioa.
- Gastua zertan egin den. Zuzeneko zerikusia izan beharko du programa gauzatzearekin.

Era berean, justifikaziorako diren dokumentuak justifikatzen duten programari dagozkionak bakarrik izango dira.

Salbuespen modura, enpresaburuak edo profesionalak ez diren pertsona fisikoek egiten badituzte jarduerak, agiriak eta, horien artean, adostutako prestazioaren hartze-agiria aurkeztea onartuko da, jasotzailearen identifikaziorako agiriarekin batera (NAN, AIZ edo pasaporte). Zenbatekoa 200 eurotik gorakoa denean, derrigorrezkoa izango da jasotzailearen banketxeko kontuan ordainketa egin izana ziurtatzen duen agiria aurkeztea.

Langileen gastuak ziurtatzeko, nominak eta gizarte segurantzako kotizazioak aurkeztuko dira.

- Zeharkako kostuetan, beren beregi eskatutakoetan ezean, ez da ezelako ziurtagiririk aurkeztu beharko. Kostu hauek diruz lagundutako jarduerari atxikiko dizkio arrazoizko neurrian onuradunak normalean onartzen diren kontabilitate arloko printzipio eta arauekin bat etorrira eta, betiere, kostu horiek jarduera gauzatzen den aldikoak badira. Jarduerari atxikitako kostua ez da inoiz izango diruz lagundutako programaren zuzeneko kostuen % 10 baino handiagoa izango. Justifikazioaren ondorioetarako, zeharkako kostuen onartutako portzentajea dirulaguntzarako oinarri den aurrekontuan onuradunak aitortu duen berbera izango da eta benetan justifikatutako zuzeneko kostuei aplikatuko zaie.

e) Diru-laguntza jaso dezakeen kontzeptu baten zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege-Dekretuan kontratu txikietarako ezarritako kopuruak gainditzen dituenean (zerbitzuak eta horniketak 18.000 € eta BEZa, obrak 50.000 € eta BEZa), onuradunak hornitzaile desberdinetako hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez, obra egiteko, zerbitzua edo ondasuna emateko konpromisoa hartu baino lehen.

Aurkeztutako eskaintzak justifikazioan edo, egoki bada, diru-laguntzaren eskarian, aurkeztu beharko dira eta horien artean bat aukeratzeko eraginkortasuna eta ekonomiako irizpideak hartuko dira kontuan. Ez bada eskaintzarik merkeena aukeratzeko, memoria batean justifikatu beharko da beren beregi.

**17.3.2. Prorrata moduluka egiten denean, honakoak aurkeztu behar dira justifikazioa egiteko:**

a) Programa gauzatzeko egindako jardueren memoria eta lortutako emaitzak. Hori guztiori bat etorriko da eskaria egitean aurkeztutako programarekin.

b) Hauek sartuko dira memoria ekonomikoan:

- Modulutzat hartutako unitate fisikoen kopuruari buruzko egiaztapena edota aitortpena

- Jardueren memorian kuantifikatutako jardueren oinarriaren eta oinarri berezietan ageri diren moduluen gainean kalkulaturako dirulaguntzaren zenbatekoa.

- Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten sarreraren edo diru-laguntzen zehaztapena, zenbatekoa eta nondikoa adierazita.



**17.3.3. Esleipen finkoko proratetan** hauek sartuko dira justifikazioan:

- a) Programa gauzatzeko egindako jardueren memoria eta lortutako emaitzak. Hori guztiori bat etorriko da eskaria egitean aurkeztutako programarekin
- b) Programa gauzatzeari dagozkion gastuen eta sarreraren balantzea, Udalak emandako ereduaren arabera.
- c) Programa gauzatzeari dagozkion fakturen zerrenda, Udalak emandako ereduaren arabera.
- d) Kasua denean, itzulketaren ordainagiria aplikatu gabeko soberakinetan, baita horietatik sortutako interesena ere.

**17.4. Justifikaziorik egiten ez denean edo egindakoa nahikoa ez denean.**

Justifikaziorik egiten ez denean edo egindako justifikazioa nahikoa ez denean, jasotako diru-kopuruak itzuli egin beharko dira, berandutzako interesekin batera, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1. artikuluan adierazita dagoen legez.

**18. ARTIKULUA.- EMANDAKO DIRULAGUNTZAK ARGITARATZEA**

---

Urtearen amaieran, Bermeoko Udalak eman dituen dirulaguntza guztiak argitaratuko dira Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udalaren web orrian.

**AZKEN XEDAPENA:**

---

Euskerazko eta gaztelaniazko testuen artean interpretazio auzirik sortuko balitz, jatorrizkoa, euskeraz idatzitakoa dala kontuan izanik, hori hartuko litzateke aintzat.

Bermeon, 2016ko martxoak 31 (ZUZENKETA, 2026ko urtarrilaren 23<sup>a</sup>)

